




Honako idazkia udala bere tramitarerako
Bazteron / Aitorretan
Pase el presente escrito al Negociado de
..... para su trámite



HERRIAN EROSKETAK EGITEN DITUZTENEN DOHAINENKO PARKINGA IZAN DEZATEN, MURIAS ETA UDALAREN PARKINGEN HITZARMENA BULTZATZEKO MOZIOA

EAJ/PNV-tik Udaleko merkataritza sustatzeko dugun asmoa kontuan hartuta, pentsatzen dugu ahalegin bat egin beharko litzatekeela dohaineko aparkalekuak eskaintzeko eta herritarrek erdialdeko dendetan erosketak egiten dituzten bitartean euren kotxeak kosterik gabe uzteko aukera izan dezaten.

Gure herri erdigunean dagoen trafikoa eta bertan aparkatzeko dauden zailtasunak kontuan hartuta, interesagarria izango litzateke Gipuzkoako beste zenbait herritan (Eibarren adibidez) martxan dauden antzeko ekimenak bultzatzea.

MURIASekin (egun herrian dagoen txandakako aparkaleku bakarraren jabea) eta udal merkatarien elkarte den ATERPEAekin aurrez adostu beharko litzatekeen hitzarmen baten bitartez, herriko merkataritza eta bertan erosketak egiten dituzten herritarrak lagundu nahi ditugu, aparkatzeko dohaineko ordu bat edo bi (egindako erosketen arabera).eskainiaz.

Hori horrela, dendetako arduradunek gaur egungo BMko parkinean gehienez bi orduko aparkaldiko balioa izango luketen tiketak eskaini ahal izango dizkie euren bezeroei. Bi ordu baino gehiagoko aparkaldiak, erabiltzaileek beraiek ordaindu beharko dituzte kotxeak ateratzeko momentuan.

Horregatik guztiagatik, EAJ udal taldeak udalbatzar honek ondorengo erabakiak hartu ditzala proposatzen du:

- 1.- Udaleko Sozioekonomia sailari eskatzea, udalaren, ATERPEAren eta MURIASen arteko hitzarmen bat negoziatu dezan, udaleko dendetan erosketak egiten dituzten herritarrei egingo BMko parkina dohainik eskaintzeko.
- 2.- Hitzarmen horretatik eratorri daitezkeen gastuei aurre egiteko aurrekontu partida nahikoa aurreikustea.